

*“Askotan, ez zara zapalkuntzaz jabetzen errealitate hori pairatu arte”*

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Saioa Martinez de  
Lahidalga Azkue  
Medikua



**Saioa Martinez de Lahidalga Azkue**  
Getaria (Gipuzkoa), 1995.

- **Medikuntza** gradua egin zuen EHU,
- **Hizkuntzen Kudeaketa Osasun Arretan** graduondokoa, UEUn eta EHU
- Orain, **BAME azterketa** egiteko ikasten ari da.

Saioa Martinez de Lahidalga Azkue buru-belarri dabil BAME azterketarako prestatzen. laz egin zuen, baina ez zitzaion nahi bezain ondo atera, eta, ez duenez lanera urruti joan nahi, berriro egingo du, emaitza hobea aterako duen itxaropenarekin. Horrekin batera, bere intereseko gaietan formatzen jarraitzen du, osasungintzarekin lotura estua baitute: hizkuntza eta generoa.

Txikitatik izan du medikuntza ikasteko gogoia, baina, dioenez, ez daki nondik datorkion, familian ez baitauka medikurik: "Baina beti izan dut gustuko biologia, eta, giza gorputza ikasten hasi ginenean, oso erakargarria egin zitzaidan. Eta, neurri batean, besteei laguntzeko gogoia ere banuen".

Dena dela, ikasten ari zela, ohartu zen barrutik oso desberdina dela, dena ez dela bokazioa. "Niri pazienteekin harremana da gehien gustatzen zaidana", aitortu du. "Konturatu naiz asko betetzen nauela entzute aktiboak, nahiz eta kontsultetan zaila den, denbora-faltagatik. Horrelakoetan, saiatzen gara hitzordu bikoitzak ematen, edo etxera bisita egiten..."

Hori jakinda, erraz ulertzen da zergatik den hain garrantzitsua hizkuntza Martinez de Lahidalgarentzat. Hizkuntzen Kudeaketa Osasun Arretan graduondokoa egin du, eta, amaierako proiektuan, adinekoen osasun-arretan hizkuntzak duen eragina ikertu du.

Gradu-amaierako lanean, berriz, beste kezka bati heldu zion: generoari. Dioenez, oso kirolzalea da, eta ikusi zuen, kirolarien inguruko ikerketa mediko asko bazeuden ere, gehien-gehienetan gizonetzkoak baino ez zituztela aztertu. Horrenbestez, "emakumeen kontu" bat ikertzea erabaki zuen:

hileroko zikloaren eragina, emakume arraunlarien errendimenduan.

### Egiteko asko

Martinez de Lahidalgak garbi du bazterketa-faktoreek bat egiten dutela kasu askotan, eta horiek are gutxiago daude ikertuta. "Generoa, adina eta hizkuntza batera aztertzen dituen ikerketa bakarra topatu dut. Turkian emakume migrante adinekoekin egindako ikerketa bat da, baina bibliografian ez dut besterik topatu. Asko dago egiteko".

Hain zuzen ere, hizkuntzen-kudeaketari buruzko graduondokoa egin ondoren, hizkuntza gutxituen ikuspegitik zer hutsune zeuden aztertzen aritu ziren, bigarren edizioan zer egin zitekeen ikusteko. UEUko uda-ikastaroetarako ere, hitzaldi bat prestatzen ari da osasungintzan hizkuntza gutxituak eta emakumeak gaitzat hartuta.

Onartu du beti ez dela erraza bazterkeriaz jabetzea: "Bilbora ikastera joan nintzen arte, ez nintzen konturatu nire hizkuntza-eskubideak ez daudela bermatuta. Askotan, ez zara zapalkuntzaz jabetzen, errealitate hori pairatu arte. Horregatik da garrantzitsua kontzientzia hartzea, eta ingurukoekin bat egitea, eskubideen alde elkarrekin egiteko, bai hizkuntzaren aldetik, baita generoarenetik ere".

Eskubideen urraketak pazienteei ere zuzenean eragiten die. Adibidez, ikerketa batean ikusi zuten, arta beren hizkuntzan jaso ez zutenen artean, tratamenduarekiko atxikimendua, asebetetze-maila eta osasun-zerbitzuaren erabilera txikiagoak direla. "Hizkuntza, azken finean, ez da hautu soila; norberarentzat funtsezkoa da, eta ez dut uste daukan garrantzia ematen zaionik osasungintzan". ●



Elkarrizketa osoa  
webgunean



Kultura  
Zientifikoko Katedra  
Cátedra  
Cultural Científica

UPV/EHU Kultura  
Zientifikoko Katedraren  
lankidetzan egindako atala.